



Astelehena  
**01**

Asteartea  
**02**

Asteazkena  
**03**

Osteguna  
**04**

Ostirala  
**05**

Larunbata  
**06**

Igandea  
**07**

Astelehena  
**08**

Asteartea  
**09**

Asteazkena  
**10**

Osteguna  
**11**

Ostirala  
**12**

Larunbata  
**13**

Igandea  
**14**

Astelehena  
**15**

Asteartea  
**16**

Asteazkena  
**17**

Asteazkena  
**31**

Asteartea  
**30**

Astelehena  
**29**

Igandea  
**28**

Larunbata  
**27**

Ostirala  
**26**

Osteguna  
**25**

Asteazkena  
**24**

Asteartea  
**23**

Astelehena  
**22**

Igandea  
**21**

Larunbata  
**20**

Ostirala  
**19**

Osteguna  
**18**



## TOPONIMIAREN BILKETA: ZERGATIK, ZERTARAKO

**T**oponimia, hau da, toki-izenak, hizkuntza baten zati garrantzitsua izateaz gain, herri baten funtsezko nortasun-ezaugarria da eta gure eguneroko bizitzan zeresan handia du: bide-seinaleetan, hedabideetan, dokumentu ofizialetan, liburuetan, errotuluetan eta, bereziki, kartografian eta mapetan ageri dira. Gainera, toponimia lurralde batean izan diren kultura, ohitura eta gertakari historikoen adierazgarri bizia da; informazio-iturri oso baliagarria izan daiteke.

### 01 JARDUNALDIA GASTEIZEN

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) antolatutako Euskal Herriko Toponimia eta Kartografiari buruzko Jardunaldia burutu da urtea amaitzeko laurogeita hamar bat aditu elkartuz Lakuako Eusko Jaurkitzaren egoitzan, Gasteizen. Euskaltzaindiaren arau berriei jarraiki, eta Deiker institutuarekin lankidetzan, Bizkaiko toponimia berrikusi ondoren, Arabakoa berrikusi dute aurten, 30.000 baino gehiago, Gasteiz hirikoak barne.

Jardunaldi honetan toponimiaren normalizazioaz, toponimia-lanaren metodologiak eta ikerketaz luze hitz egin da. Bertan kartografiak eta Nafarroako eta Iparraldeko toponimiaz ere aritu ziren hizlariak.

Hitzaldi horren helburu nagusia, toponimia zergatik eta zertarako aztertu eta ikertu behar den aditzera ematea izan da.

### 02 HPS-REN LANA TOPONIMIAREN ALORREAN

Toponimia da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren lan-ardatzetako bat: leku-izenak bildu, gorde eta belaunaldiz belaunaldi transmititzeko ahaleginak, alegia. Izan ere, toponimoak historiaren lurralde batean bizi izan diren herrien edo lurralde horrekin harremanetan izan diren kultura, tradizio eta erlijioen fruitua dira. Kontuan hartu behar da azken urteotan landa-eremuetako biztanle askok hirietara alde egin duela ekonomiaren beharrek bultzatuta; fenomeno horrek informatzaileak eta lekukoak galtzea ekarri du eta, ondorioz, toponimoak ere galtzea. Denboran zehar leku-izenak aldatzen doaz, izen berriak azaldu eta beste batzuk galtzen dira, eta, horren ondorioz, askotan leku bat izenda tzeko modu bat baino gehiago aurkitzen dugu. Hori dela-eta, hizkuntzaren arlo honetan, beste askotan bezalaxe, behar-beharrezkoa da hizkuntza arlo hau arautzea eta normalizazio linguistikoa sakontzea: hala, hitzunik toponimia normalizatua erabili ahal izango dute, eta mapan eguneratuz, gure lurralde eta herrietako bazter guztien izenen aberastasuna zabalduko da.

Beraz, toponimiaren alorreko lanaren ardatza leku-izenak arautzea eta normalizatzea da, hau da, toponimoak nola idatzi behar diren eta mapetan non kokatu behar diren zehaztea eta finkatzea.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) aspaldi ekin zion EAEko toponimia bildu, aztertu eta normalizatzeari. Izan ere, Kultura Sailaren egitura ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 16. artikulua honako zeregin hau egozten dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari:

**Bide-seinaleetan eta hizkuntza-paisaian, oro har, toponimia normalizatzeako jarduerak gauzatzea, beti ere, Euskararen Aholku Batzordearen Toponimiako Berariazko Batzordeari ez dagozkionak.**



Dena den, toponimia-lanari buruzko langintza ez da hasiberria, izan ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak azken hogeitaz lanean jardun du Euskal Autonomia Erkidegoko toponimia biltzen, arautzen eta normalizatzen; hau da, EAE osatzen duten hiru lurraldeetako toponimiaren bilketak egin dira, bildutako toponimoak ikuspegi geografikotik normalizatu eta hizkuntzaren ikuspegitik arautu dira. HPSk araututako toponimoei zabalkunde eman die, toponimoen erabilaren jarraipena egin du eta udalerrien zein biztanle-guneen izen ofizialetan aldaketak egiteko premia ikusi den guztietan, sustapen-lana egin du.

Toponimia ikertzeaz gainera, herritarrei helarazi behar zaie ikerketaren emaitza, izen horiek herritarren eguneroko bizitza arruntean eta udalaren ohiko jardueran erabil dezaten. Ikerketa baten helburua ez da, honenbestez, herriko leku-izenen bilduma zurrin bat plazaratzea, izen horiek gaurko bizimoduetara egokitu eta eguneratzea baizik, beharrezkoa izanez gero, izen zaharrei erabilgarri bihurtuko dituen balio berriak erantsiz eta atxikiz. Azken kasu honen adibide egokiak izan daitezke industrialdeak, polígono 27 izena hartu beharrean, desagertutako baserri edo dorretxe baten izena hartzen duenean.

### 03 TOPONIMIA-BILKETA HERRIZ HERRI

Legediak ezartzen dizkion egiteko horiek betetze aldera, HPSk lan ugari egin du toponimia-arloan: 1986an ekin zion EAEko toponimia biltzeari, Bizkaiko leku-izenak datu-base batean jarri zituztenean; geroago, 1991n, datu-base hori Gipuzkoako eta Arabako toponimia bilketa-lanekin osatu zuen. Harrezkero, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza etengabe aritu da toponimiako datu-basea eguneratzen eta osatzen.

Aipatutako Bizkaiko toponimia-bilketa berriaren helburua lehen inbentarioan (1986) bildutako toponimoak berrikusi, eta landa-bilketa berriz egitea izan zen. Aurrekoaren aldean, lan horrek honako berrikuntza hauek ekarri zituen: kode geografiko berriak ezarri ziren eta hizkuntza-arauak berraztertu eta berriak onartu ziren.



Bizkaiko toponimia-lan horretan bildutako toponimoak edo leku-izenak, batez ere, landa-lanaren bidez egindako elkarrizketetan jaso ziren. Halaber, dokumentazio-iturriak eta iturri kartografikoak aztertu eta gaiari buruzko bibliografia zabala kontsultatu zen, lan orokorrak eta geografiko eta historia-geografiako hiztegiak zein lekuan lekuko monografiak, unibertsitateko tesi eta tesinak, toponimiari buruzko azterlan zehatzak, hizkuntzari buruzko ikerketa berezituak eta abar. Ikerketa-lan horren azken urratsean, bildutako toponimoak hizkuntza-normalizazioaren galbahetik pasatu ziren, eta hortik atera zen normalizatutako toponimoen multzoa. Azkenik, toponimo horiek 1:5.000 eskalako kartografian txertatu ziren.

Bizkaikoa bukatuta, 2005. urtean HPSk Arabako toponimia berrikusteko kontratazioa abiatu zuen, aurrekoetan bezala oraingoan ere lehiaketa publiko bidez. Lan horren helburua 1991tik datu-basean zegoen Arabako eta haren hiri-buruko toponimia berrikustea izan zen, eta, hala, normalizatu eta 1:5.000 kartografian txertatzea, Bizkaian erabilitako irizpide eta hizkuntza-arautegi berriaren arabera, eta landa-lanik berriz egin gabe.

Lan horretan, iturri dokumentalen hustuketa egin zen: ildo horretatik, katastroa, iturri kartografikoak, artxiboak eta argitalpen berezituak arakatu ziren, hau da, informazio idatzi baliagarria biltzen zuten dokumentuak; toponimoen normalizazioari dagokionez, arautegia berriz osatu behar izan zen, Arabako kasuistakari eta errealitateari egokitzuz.

Azkenik, EAEko toponimiaren azterketa-lana osatzeko, aurten Gipuzkoako toponimiaren berrikusketari ekingo dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak; lan hori 2007ko abenduan amaitzea aurreikusten da. Gipuzkoako lan honen ardatza Bizkaiko eta Arabako lanen ildo nagusiekin bat etorriko da, hizkuntza-normalizazioa eta normalizazio geografikoa egiteko orduan, aurrekoetan aplikatutako arautegia hartuko baita oinarritzat. Arabako berrikusketa-lanean bezala, oraingoan ere ez da landa-lanik egingo. Lan honen helburuak, hortaz, hauek izango dira:

- \*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren EAEko datu-basean dagoen Gipuzkoako lurraldeko toponimia berrikustea.
- \*Horrekin batera egin beharreko hizkuntza-normalizazioa eta normalizazio geografikoa gauzatea.
- \*Aipatutako lan horien emaitza 1:5.000 eskalako kartografian txertatzea.

## 04 EAE-KO TOPONIMIA SAREAN

Lan horien ondorio da gaur egun Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak duen toponimiako datu-basea. Egungo teknologia berriek eskaintzen dituen aukera paregabeak erabiliz Internet sareak toponimiari buruzko hainbat tresna jartzen ditu denon eskura, bertan jasotzen baitira, lehen esan bezala, azken hogeitaz egindako lanen emaitzak. Datu-base horretan Bizkaiko toponimia-bilketa (2003) eta Arabako toponimia-lana (2005) jaso dira, eta 2007. urtean Gipuzkoako toponimia-lan berriaren edukia ere jarriko da bertan kontsulta egiteko moduan.

Datu-basea [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net) web gunean dago ikusgai.

Gipuzkoako berrikusketa bukatuta, EAEko lurralde guztietako toponimia normalizatuta egongo da; hortaz, toponimiako web orrian Bizkaiko eta Arabako leku-izen normalizatu eta eguneratuak eskaintzeaz gain, Gipuzkoako informazioa ere eskuratu ahal izango dute erabiltzaileek, toponimia-arloko zerbitzua nabarmen hobetuz.

HPS etengabe aritzen da toponimiako datu-basearen informazio hori egunera tzen eta zuzentzen, horretarako sortutako mantentze-aplikazio baten bidez.

## 05 TOPONIMOAK KARTOGRAFIAN

Argi dago mapak funtsezko bidea direla toponimoak zabaltzeko; HPSn urteak daramatza mapak aztertzen, eta zeregin horretan konturatu da kartografiak Euskal Autonomia Erkidegoan ezaugarri bereziak dituela: 2 hizkuntza ofizial ditugu eta, hala ere, hemen ez da mapa elebidunik argitaratzen, mapa gehien-gehienak elebakarrak dira.

Mapa elebidunak nahasi samarrak izaten dira: zailak irakurtzen, informazio gehiegi eskaintzen dute oso eremu txikian. Mapa elebakarrak, berriz, argiagoak dira, baina informazioa gaizki interpretatzeko arriskua dago; oso ohikoa da honelakoak ikustea:

### Euskarazko mapetan

- \*Upazagako atxa (Arratzu-Ubarrundia),
- \*Ignazioren erlategia
- \*Lanaren hiribidea

### Gaztelaniazko mapetan

- \*Cima Upazagako
- \*Abejal Ignazioren
- \*Avenida de Lanaren

Hortaz, mapa elebakarretarako, toponimoen bertsio bakarra behar da, hau da kartografian txertatzeko toponimoak behar dira.

Beraz argi ikusten du HPSk hori dela bidea, bi hizkuntzetarako bertsio bakarra behar genuela.

Hala ere, horrek beste arazo bat zekarren berekin: nola adierazi toponimo horien entitate geografikoa (gaina, iturria, erreka...), hau da, nola adierazi "Upazaga" zer den, edo erdaldun batentzat "Errekazuri" zer den. Arazo hori ikusita, irizpide hauek lantzen hasi da HPSk mapetan toponimia argi eta txukun adierazteko, beti, edo ia beti, bertsio bakarra errotulaturik ikur konbentzional bat ondoan duelarik, ahal den guztietan behintzat. Halaber, maparen ondoan, legendan, erabilitako ikur guztien esanahia jasoko da.

Eta bukatzeko, hona hemen toponimo guztietarako aplikagarriak diren zenbait jarraibide orokor:

- **Toponimoa hizkuntza bietako batean, euskaraz nahiz gaztelaniaz, arautu bada, eta beste bertsioa ezagunagoa edo erabiliagoa bada, hori ere errotulaturik da bestearen ondoan, parentesi artean. Esate baterako:**

- \*Sandoni (San Antolín)
- \*Zamudiotorre (Malpica)

- **Errotulatzeko hurrenkerari dagokionez, euskarari lehentasuna emango zaio (eu/es):**

- \*Mandazaibidea / Camino de los Arrieros.



## BIDEGILEAK BILDUMA: lau sorta berri kalean



**B**idegileak bildumak euskara sustatu, sendotu, zabaldu eta normalizatzeko saioretan eragina izan duten pertsonen (edo mugimenduen) historia hurbiltzen dio irakurleari. Aztertu ez ezik, omendu ere egin nahi ditu,

**gaurko zein bihar-etziko belaunaldiak gu baino lehen aritu izan diren andre-gizon saiatu horien berri izan dezaten.**

Mikel Atxagak zuzentzen duen bilduma hau orain arte osatzen zitzuten 168 biografia banatu ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskaltegi, liburutegi eta kultur etxeetan. Informaziorik lortu nahi duen euskaltzaleak dendetan eta web orrian (<http://www.euskara.euskadi.net>) aurki ditzake biografia hauek.

Argia lehen aldiz 1987an ikusi zuen bilduma honen beste lau sorta kaleratuko dira negu honetan, 43 eta 46 zenbakien artekoak alegia. Biografiagileak sona handiko adituak dira. Jarraian, biografiagileen eta euskaltzaleen zerrenda.

43. sorta 2006. urtean mendeurrena edo urteurrena zutenekin osatu da.

Xabier Kintana: TXOMIN JAKAKORTEXARENA

Jon Enbeita: BALENDIN ENBEITA

Pako Sudupe: PELLO SARRIEGI

Beñat Gaztelu-Urrutia: JOSUNE MUNITXA

44. sorta, berriz, euskal kantagintzan nabarmendu zirenekin prestatu du bildumagileak.

Joxemari Iriondo: JULEN LEKUONA

Felipe Juaristi: IMANOL LARTZABAL

Joxemari Iriondo: LURDES IRIONDO

Agurtzane Intxaurreaga: MAURIZIA ALDEITURRIAGA

45. sortak ikertzaileak biltzen ditu

Ricardo Badiola: PEDRO YRAZAR

Jean Louis Davant: MANEX GOIENETXE

Gregorio Arrien: JOSE MARI LARRARTE

Adolfo Arejita: JOSE BASTERRETXEA OSKILLASO

46. sortak, orain arteko azkenekoak, idazleak eta antzerkizaleak bildu ditu

Nerea Azurmendi: MIKEL GARMENDIA

Gotzon Egia: AGUSTIN ANABITARTE

Aitor Manterola: KARMEN BALENTZIAGA

oseba Iriondo: BEGOÑA BILBAO

Biografia irakurterazak dira, hogeitaz orrialde inguruhoak, eta argazkiz eta irudiz beterik eskaintzen zaizkio irakurleari.

# □□ HPS, EUSKARAREKIKO ATXIKIMENDUA AZTERTZEN

**E**uskal gizartea erakunde publiko eta pribatuen laguntzaz euskara sustatzeko ahalegin ekonomiko eta pertsonal handia egiten ari bada ere, bide luzea du aurretik euskararen eskurapena, eta ondorioz, berezko erabilera erabatekoa izan daitezke; hizkuntz gaitasuna urtez urte handitzen bada ere, erabilera motelago ari da garatzen. Gainera, gizarteko zati handi batek ez ditu oraindik ikusten euskarara hurbiltzeko dituen onura pertsonal zein sozialak. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2009 epealdirako ontzat emandako egitasmoek erdal komunitatearen inplikazioa bilatzen dute, bai euskararen normalkuntzaren bidean, bai euskal munduari buruzko komunikazioa bideratzeko ahaleginean. Aldi berean, euskararen diskurtso integratzailea eta erakargarria landu eta sistematikoki gizarteratzea da helburua. Horretarako, euskararen normalkuntzaren inguruan adostasun politiko eta sozial berria lortzeko ari dira lanean, eta zeregin horri heltzeko garaian, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Uneskok, erakunde honek Euskal Herrian zabaltzeko asmoz 1991n sortutako Unesco Etxearen bidez, euren lana bateratzeko erabakia hartu dute. Erakunde biek, zehaztutako jardunbideotan aurrera egin ahal izateko, beharrezkoa deritzote egoeraren azterketa egiteari. Unesco Etxearekin sinaturiko akordioaren bitartez, herritarren euskararekiko iritziak eta usteak bertatik bertara ezagutzea lortuko du HPSk, euskararen normalkuntzaren bidean. Eraitzak, ezbaierik gabe, oso mesedegarri izango zaizkio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bere egitekoak burutzeko.

## 01 HPS - UNESCO: LOTURA AURREKARIAK

Euskarari begira, Unesco eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkar-lana ez da berria. Elkarrekin nazioartean garrantzizko erreferentzia diren zenbait dokumentu euskal gizarteari euskaraz eskaini diote. Unesco Etxeko Belen Urangak dioenez, "askotan ez de erraza izaten ekimen horren garrantziaz jendea ohartaraztea, baina euskararen normalizazio bidean ezinbesteko urratsa da dokumentu hauek euskaraz eskaintzea".



Txosten hauek hainbat gairi buruzkoak dira: garapen, giza eskubide, ingurumena edo hizkuntz arloak adibidez. Azkenengo honetan, munduko hizkuntzei buruzko txostena nabarmenduko dugu. Arlo honetarako Unesco Etxeak Amarauna (World Languages Network) sortu du hizkuntz eskubideak eta betebeharrak zabaltzeko; eta bere helburua munduko hizkuntza ondarearen eta aniztasunaren garrantziaz ohartu diren pertsonen eta erakundeen arteko harremanak bultzatzea eta sendotzea da.

Munduko hizkuntzei buruzko txostena izeneko proiektua Unescoren 1997ko Biltzar Nagusian (29. bileran) onartu zen eta Eusko Jaurlaritzaren (Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia eta Kultura Saila) eta Unescok finantza tzen du 1997ko uztailaren 23an sinatutako Akordio-Memorandumari jarraiki. Txostenaren helburuak, munduko hizkuntzei buruz ahalik eta informazio gehien biltzea da, munduko hizkuntz ondareari buruzko datu-bankua sortzeko, hizkuntzei buruzko egoeraren diagnosi egiteko eta errealitate soziolinguistikoen prospekzio azterketa burutzeko. Hori guztia desagertzeko arriskuan edota gutxitutako egoeran dauden hizkuntzen sustapen eta berreskurapenerako politiken arloan hartu beharreko erabakiak errazteko planteatu da.

2005ean Multilingual Mattersek Txostenaren ingelesezko bertsioa argitaratu zuen (*Words and Worlds*), eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU-UPV), euskarazko edizioa (*Hizkuntzen Mundua; Munduko hizkuntzei buruzko txostena*). 2006ko urrian frantsesezko edizioa *Un Monde de Paroles, paroles du monde*

# euskararen Berripapera

(L'harmattan) eta gaztelaniazkoa joan den urrian *Palabras y Mundos. Informe sobre las lenguas del mundo* (Icaria) aurkeztu ziren. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundu du lau bertsioen jatorria den ikerketa, urte askotako lanaren emaitza, alegia.



Patxi Baztarrika HPSko zuzendaria, EHUKo eta Unesco Etxeko arduradunak, Munduko hizkuntzen txostenaren aurkezpenean.

## UNESCO ETXEAREKIN HITZARMENA

HPSk euskalgintzan lan egiten duten erakundeekin elkarlanean jarduteko helburuari jarraituz, hitzarmena sinatu du Unesco Etxearekin hiru urteko lan-programa aurrera ateratzeko. Lan horretan, Unesco Etxeko hizkuntzalari talde batek (Itziar Idiazabal EHUKo irakasleak zuzenduko duena) ikerketa egingo du elebitasuna eta eleantzasunari buruz jendearen iritziak biltzeko. Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburordeak dioen bezala "gure egoera soziolinguistikoa nola ikusten duten jakiteko".

Ikerketa hau egiteko, aurretik Euskal Herrian eta nazioartean egin diren azterketa partzialak kontuan hartu dira, beste ikuspegi batetik abiatzeko. Euskararekiko jarrerak Euskal Herriko gizarte osoa kontuan hartuta azaleratuko dira. Era horretara, euskararekiko jarrerak zein diren, zein dimentsiotan biltzen diren, nola adierazten diren eta orokorrean nortzuek (zein giza taldek) erakusten dituzten antzemango da.

Hurrengoak izango ditu aztergai:

- Euskara eta balio integratzailea; euskarak identitatean duen garrantzia, euskara eta elkartasuna: euskaldunak gizarte mailan pertsona erakargarriagoak diren ustea zenbateraino dago zabaldurik?

-Euskararen aldeko jarrera eta ideologia politikoa lotuta dauden ustea gizarte osoan dago zabaldurik?

-Euskara eta balio instrumentatzailea, profesionala, estatus mailakoa: euskarak lanerako balio du, estatus handiko egoeretarako balio du? Maila profesionalan euskaldunak erakargarriagoak dira? Euskara eta klase sozialaren artean loturarik ote dago: euskararen aldeko jarrera epelagoa ote dute goi mailakoak?

-Euskara eta eleantzasuna: euskaldun izatea bigarren hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko abantaila dela uste da? Elebidunak harrera hobea egiten dio hizkuntza etorri berriari? Edo biziraupena arriskuan jartzen du? Oro har, elebidunek eskolako arrakasta handiagoa duten ustea zabaldurik dago?

-Hizkuntzari buruzko jarrerak: jarrera arauemaileak, kode-alternantzia eta transferentzia linguistikoari buruzko jarrerak eta iritziak. Jarrera preskribatzaileak izateak eraginik ote du euskararen eskurapenean eta erabileran?

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ikerketa honen bitartez, herritarrek euskararen gainean duten ikuspuntua ezagutzea lortuko du. Bestalde, Unescok munduko beste toki batzuetan aplikatu ahal izango ditu ateratako ondorioak, antzerako egoeratan aholkulari gisa aritzeko.



Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz (Araba) Tel.: 945 01 81 16 berripapera@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Legezko gordailua: VI-572-1992

ISSN: 1138-3038